

I. K. A.

Renada Mathieu / Francesc Salvà

# Eskailera erroaldoia



Sirena  bilduma

# Eskaiera eraldora



Proventzako ipuin herrikoia  
egokitzailea: Renada Mathieu  
bizkaieraz: Bibine Pujana  
marratzkiak: Francesc Salvà

J.K.A. Ibaizabal  
Zornotza

Antxine, antxine, gaurko bai  
badira harrezkero mila urte  
toki bakarti baten herri bat egoan,  
biztanle gehienak ezjakinak ziran.  
Bai, ezjakinak eta txirioak.

Mahastiak eta artoak ipinteko  
ez eukien toki haundirik,  
horregaitik sarri-sarri zerura  
begira egoten ziran.



Behin baten, danetatik  
jakintsuena zan Gerbasio  
agureak, danen aurrean bere  
buruari itaundu eutsan:

-Eta, zergaitik ez gara  
ausartzen zerura igoten?

Bai, baina zelan? Eskailerakaz  
beharbada? Ederto!





Herri guztian, lau eskailera  
bikoitz baino ez egozan.

Azin ekarri eta enparantzaren  
erdian eskailerak elkartuta, lotu  
ebezan, 15 metroakoa lotuz.




-Baina, non oinarrituko dogu eskailera  
erraldoi hau? -itaundu eban batek.

Gerbasio agurea pentsatzen hasi zan.


-Badakit!

-Aurkitzen dozuezan ardo-upel  
gurziak, hutsak zein beteak, batu  
eizuez -agindu eban-.

Herrian egozan upel gurziak bilatu  
eta aulki, aulkitxo edota eskailera  
txikiz baliaturik pilatu ta pilatu  
egiten ebezan!



Zabaldu eber ba eskailera  
erraldoia eta upel mendian  
oinarritu eber. Gero goragora  
igo eber, behin eta barviro  
Gerbasio gainean egoalarik.  
Bitartean, auzotarrak upelak  
ekarri eta ekarri, metea geroago  
eta geroago igonez joian.



Azkenean zerura heltzeko upel bat  
bakarrik falta zan.

-Azkena! Bat bakarrik! Entzuten  
deustazue? -eskatu eutsen zarataka  
Gerbasioak goitik, oso urinetik.

Baina upel bat ere ez zan gelditzen. Eta  
elatzia hartzeko, Gerbasio ez egoan eureka.


Han goian, ia zeruan, inurri baten  
moduko txikia, keiruka, ikusten zan

Gerbasio, eta upel bat bakarrik  
falta zan.




Bat batean, Eoramonek,  
upelariaren semeak, agerkunde  
baten antzekoa euki eban:

- Eta beheko upela hartuko  
bagendu? Kordelean lotu  
ahal izango geunke eta goitik  
tiratu dagiala.








Lau gizon indartsuenak  
erremangau eta tiratu eta  
tiratu, hagina ateraten  
balebiltz lez, azkenean upela  
atera ahal izan eben.

Une horretan oihu ito bat  
entzun zan, zerutik etorren eta  
zutabe guztia, mila deabruen  
burunbada ateraz, karta-gaztelu  
baten moduan jausi zan.

Munduaren azkena heldu zala  
pentsatu eber guztiak.



Flauts lainoa desagertu zenean,  
Gerbasio gizajoa luoretik jaso eben  
eta, buruz behera, bizirik baino  
hilago, bere etxera eroan eben.  
Amets zerutarra amaitu zan!



Enparantzan Erramon,  
upelariaren semea, bakarrik  
gelditu zan eta upel apurtuen  
artean pozaren pozez dantzatzen  
hasi zan. Berak, behintzat,  
bost urte baino gehiagorako  
lana eukan!





© Renada Mathieu, 1.990, egokitze lana

© Francesc Salvà, 1.990 mairazkiak.

© La Galera, S. A. Editorial, 1.990

© Euskaraz: Elkar, S. A. 1.990

Eskuiskribatzaile: Joxemari Gelleria

Lege gordailua: B. 11. 354/1.990

J.S.B.N. 84-7529-795-1

Elkar, S. A. Argitaletxea

Esterlines 10-2º, 20003 Donostia

Tf.: 426319

Inprimatzaile: J. G. Domingo, S. A.

Industria, 1-08970 Sant Joan Despí (Barcelona)

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako  
Kultura eta Turismo Sailaren  
laguntza jasotzen du.

1. Ahotsik bako aita
2. Erena eta ilargia
3. Hodei tripaundia
4. Deabruaren zubia
5. Semaforoa
6. Azeria eta arrainsaltzailea
7. Musar asmatzailea
8. Urdainoa poltsikoetan
9. Igel azkarra
10. Andere erraldoia eta bela baltza
11. Martarentzat eskutitza
12. Flatzamarrak, banan-banan, hamar
13. Aitita maitea
14. Ilargiak berba egingo balen
15. Eskailera erraldoia
16. Nire artatxorria

